

**EZKABARTEKO EUSKARA,
IRUÑEKO UDAL DERMIOAREN ONDOKOA,
CELEDONIA ZENOZ ANDREAREN AHOTAN**

Koldo Artola

SARRERA GISA

Eusko Ikaskuntzak, aurtengo Martxoan bidalitako gutun baten bidez, Aingeru Irigarai (G.B.) zenaren omenalditan halako «Sail Koaderno» prestatu nahian nigana jo zuenean poz haundi bat sentitu nuen, hainbeste maite eta are miretsi izan dudan jaun eta adiskide on honi egin beharreko omenaldi-lanerako, seguru asko, txit bere gustokoa izango zitzaion lan bat argitaratzeko aukera ematen zidalako.

Aingerurekin lotzen ninduen adiskidetasuna aspaldi haundi xamarrekoa zen. Hasiera batetan, nire ustez, bere semealabekin mantentzen nuen adiskidetasunetik etorria izango zen harekiko ezagutza baina behin hura eginda gero, eta berak hain sakonean zeraman euskal nafartzaletasun hartan guztiz berarekin sentitzen nintzelarik, laster gertatu ginen adiskide.

Gogoratzen naiz, eztiki, mediku-gelarik ez baina, beste edozein gauza zirudien gela hartan —sofa, mahai, alki... zera guztiak paper-nahasketa izugarria eginda, nahiz berak zer bilatu behar bakoitza non zegoen ongi jakin—, zemolako ordu ederrak pasa genituen, hainbat ohitura, ipuin, pasadizu, gramatika-arazo etab. kontatzen zidala eta baita, orobat, hark berak, 1935. urtean, euskaraz mintzo zen hegoaldeeneko nafar herrien zerrenda prestatu ahal izateko datuak «han bertan» biltzean (ikus «Una Geografía diacrónica del Euskara en Navarra», 140. orr. eta hurr.), eskuratu zituen eskuizkribu-sorta batzu —katiximak gehien bat— nongoak ote zitezkeen, zemolako itxura zuten bertako euskara-motek eta abarrez luzaro eztabaidatzean ere.

1972. urtean, Auritzen, Pablo Fermín Irigarai Goizueta «Larreko» (1869-1949), gure Aingeru honen aitaren oroitzapenetan omenaldi-ekintza bat prestatu zenean, han gertatu ginen donostiar talde haundi xamar batetakoak, eginkizun sentikor hartan eskuhartzeko asmoz. Aingeruk, harez gero, «Pro-sistas navarros contemporáneos en lengua vasca» izeneko liburuan, bere aita zenaren izkribu interesgarri batzu bilduak zituen, Luzaideko seme prestu izana zen Enrique Zubiri Gortari «Manezaundi»-ren beste sorta lillugarri

batekin batera. Guzti hau, irakurleren batek jakin ez dezan baitezpadako kasurako diot, Aingeruri bere euskaltzaletasuna eta, oro har, honen baitako nafartzaletasuna familiaratik zetorkiola agerian jartzeko; zeren hazi hau berak ere jakin baitzuen bere semealabengan ereiten, era honetan garai batetako edozein erronkariarrek esango zukeen «nolako egurra, kalako sua» —edo *suia?*— esaera, bere familian bete-betea kunplitzera etorritz.

Gugandik alde egin baino lehenagoko hilabetetan ikustera joan nintzaion eri gaiztoak gogorki harrapaturik zuela, eta nik, berak ia hitzegin ez baina batek esandakoa ongi ulertzen zuela jakinik, lehen esandako garaietan berak kurrituriko lurralde luzezabal haiexetan, arestian, bildu ahal izan dudan zenbait zinta grabaturik eraman egin nion, atseginezko denbora-pasa labur batzu izan zitzaizkion. Ondoko egunetan semeek adierazi zidatenez, zenbait irribarre egin zuen Aingeruk haien bidez entzun ahal izan zituen xeblekeria batzu aditurik. Eraman nizkion zintetarik bat, lantxo honen zio izatera etorri den Ezkabarteko Anotz herriakako Celedonia Zenoz andreari grabaturiko bat izan zen. Beste zintaren bat ere, oker ez banago, 1982. urtean alde egin zigun Esteribarko Inbuluzketa herri txikiko andre bati jasorikoa zen eta, egia esan, besteren artean hau aukeratua izanaren arrazoia Aingeru gazterik alargundu eta, zerbitzari gisa, etxera eraman zuen herri horretako Ines Auza andrearen mintzamoldearekin zer gogoratu sentikor haundirik edukitzea izan zen, gaurregun hilik dagoen andre hau Aingeruren semealabentzat ia bigarren ama bat izatera etorria baitzen, hauek ere, askotan, maiteki oroitarazten dutenez.

Bai zinta hau bai besteak, diodan bide batez, Bonapartek, 1863.eko bere mapan, Hegoaldeko Goi-Nafarreraren baitako «Cispamplonés» azpieuskalkizat sailkatua zuen lurraldetako haran desberdin batzuei zegozkien.

Eta behin honera iritsiz gero, lan honen izenburuko gaia zergatik aukeratu dudan esatea dagokit.

Aingeruk idatziriko lan ugarietan Beriain, Utergako abade famatua, aipatzen zuen maiz askotan eta honen «Doctrina cristiana en romance y bascuence» izeneko liburu ezagun bakarraren jabe hura zela harroxko antzean gogorarazi ohi zigun behin-berriro. Baina Beriain honek «Tratado de cómo se ha de oyr missa, escrito en Romance y Bascuence, lenguages de este Obispado de Pamplona» deitura luzeko beste liburu bakan bat idatzi zuen —zeinetik, itxuraz, ale pare bat besterik ezagutzen ez den—, berorren hitzaurrean zera hau zioela: «Yo escribo el que se habla en Pamplona, cabeça deste Reyno y Obispado de Navarra, que es el que se habla en la mayor parte del, donde se habla bascuence y el que mejor se entiende en todas partes, y quando a alguno le pareciere que en algunas cosas no se entiende, delo que escribo en Romance puede sacar el bascuence que se usa en su tierra, porque no voy atado a las palabras del Romance...». Hau 1621. urtean argitaratua izan zen.

Bonaparte Printzeak, bere mapa miresgarrian, «Hegoaldeko Goi-Nafarrera» deiturarenpean sailkatua zuen euskara hau, eta Aingeruk ere sarri esana digunez, «... fue, no hace aún dos centurias, el más extenso de todos los dialectos éuscaros, como ya lo anotó el Príncipe; desde Roncesvalles hasta

más al sur de Estella, según mis cálculos» (Nuevos documentos para el estudio del Vasconce Alto Navarro Meridional, Problemas de la Prehistoria y de la Etnología Vascas) delakoan. Iruñeko euskara, beraz, halakoxea zela jakiterik badugun arren, zalantza bat sortzen zaigu, Bonaparte Printzeak, bere mapan, nafartarren hiriburua «zuriz» utzi zuela kontutan hartuz: zein azpieuskalki mintzatuko ote zen Iruñen? zeren, inguruan dituen herri, haran eta zendeak oro, mapari begira beti, euskalki berekoak baldin baziren ere, azpieuskalki eta hizkera nahiko desberdin batzuri loturik azaltzen baitira. Baditugu, bai, Iruñeko hizketa-modua zernolakoa zitekeen ideia pixka bat ematen diguten datu batzu, agian Egues aldera begiratuko luketenak (Juan de Amendux iruñarraren XVI mendeko eresia patetikoan ikus daitekeen euskara, esate baterako, Egues aldean erabiltzen zenetik aski hurbila antzeman daiteke) eta baita, orobat, 1609. urtean, Venegas de Figueroa Iruñeko apezpikuak eraginik, Sakramentu Guztiz Santuari lehiaketa-moduko konkurrentzian para zitzaizkion sarizaturiko bertso batzu ere. Hauetako hizkerak, era berean, beste inora baino gehiago Egues aldera begira dagoela dirudi, lehiatzaileak nongoak ziren ez dakigun arren.

Baina hauek, bertsoenak alegia, aspaldiko kontuak dira eta haiez geroztiko urte luze bezain ilunotan mintzamolde horiek nola etorri diren bilakatuz ez dakigularik —baldin egoera bilakatuz etorri bada, noski—, ezin tesi segururik batere menturatu.

Guztiarekin ere, Iruñekin, hots, Iruñeko udal dermioarekin mugatzen duten haranetarik batetan, agian, euskal hiztunen bat geratuko baldin bazen, garbi zegoen, erraz ez izan arren, Ezkabarten behar zuela izan. Eta esango dut zergatik: 1960. urteko «Euskera» aldizkarian (377. orr. eta hurr.), haran honetako hizkera ezagutzeko ezin egokiagorik den «El catecismo manuscrito de Maquirrian de 1828» izeneko lana ikus daiteke, gure Irigarai honekiko *halabeharrezko* aipamena eta guzti. Lan honen aurkezle den Pedro Díez de Ulzurrun Jn.k, besteak beste, esaten digunez, «Actualmente, en Cildoz no habla nadie en vasco. Queda un pueblecito en el valle de Ezcabarte (Anoz) que habla la gente mayor, me refiero a los mayores de cincuenta años, debido probablemente a su situación hacia el valle de Olaibar —«...y al de Odieta» gaineratu beharko zukeen, agian ere bai, gaurregun Anotzek duen errepi-deak, urte haiexetan bukatu berria, Odietako Anozibar herrixkara daramala kontutan izanik— y su aislamiento entre montañas». Beraz, lan hau argitara emaniko 1960. urtean, Anotzen, 50 urtetik gorako euskaldunen bat baldin bazegoen, ahalgarri zirudien, egungo egunotan ere, norbait izatea, eta, nahiz Anotz herrira joan eta bertako hiru familietan euskaraz mintzo denik ez aurkitu, ez nuen, aldirako, hango norbait aurkitzeko itxaropena galdu. Azkenik, handik lasterrera, itxaropen hori egia bihurtu zen inguruko herrietan Anozko norbaiten aztarna bila dexente ibilirik, Iruñen aurkitu eta honera dakardan andre jator honekin.

Eta behin honera iritsirik, beharturik nago berriz ere Aingeru zenaren aipamena egitera, eta oso gogo onez dagit, egin ere, zeren berak, 1971. urtean, argitara eman zuen «Noticias y viejos textos de la Lingua Navarro-

rum» deitu liburuan (37. orr. eta hurr.), duela urte asko aurkitu eta 1932. urtean RIEVen argitaratua zuen «Acta Municipal en lengua vasca» delako bat, Ezkabarte bereko Zildotz herrikoa, agerian jartzen baitzigun.

Zildotz honetan, ordea —eta gauza bera Ezkabarte honetako beste zenbait herritan—, euskara noiz galdu zen ideia aski hurbila ematen diguten datu batzu baditugu: lerro hauek burutzen ari garen 1984. urteko Ekainean hirurogei urte inguru izango duen Zildoizko gizon batek, nonbaitetik hasteagatik, esaten duenez, bera gaztetxo zelarik bertako bere amonari aditzen zion euskaraz hitzegiten adin haundiko beste pertsona batzuekin. Andre hau duela 120 bat urte izango zen sortua, Bonapartek bere mapa prestatzen ari zelarik, gutxigorabehera, eta, ditugun datuen arabera, 36-39. etako gerla bukatu eta, oraindik orain beste hamarkadatzu batez iraungo zuen euskarak, eskuarki.

José Luis Borda adiskide soraurendatrak aditzera ematen didanez, herri honetako Antonio Atondo Arraiza bere aitonak, duela 112 urte sortua, euskaraz bazekien. Eta baieztape hau indartzera datorkigun beste datu bat badugu ere: Anotz ondoko Olaibar haranean dagoen Olaitz herrikkako Jose Mari Makirriain agure euskaldunari (96 urte) aditua diodanez, bera gazte zelarik «en Sorauen hablaban (euskara) hasta los gatos». Bera gazte zelarik, argi dago, haurrek ez zuten egingo, ez baitzuten ikasia izango, baina, seguru asko ere, orduko adintsuek, eta baita hain zahartu gabeek ere, aise erabiliko zuten; bestela esanda, nahiko gauza arruntza izango zen garai hartan euskararen erabilpena.

Mendebaldera berriro itzuliz, Makirriain herriko 80 urte inguruko gizonetzko batek iazko sanfermiñetan esaten zidanez, orain 115-120 urte «izango zituen» bere aitak bai ornen zekien euskara, eta hau Iruñetik oraindik hurbilago den Berriosuso herrikoa zen, Antsoingo zendean (Bonapartek Oltzako hizkera barman sailkatua zuen hau, «Ultrapamplonés» deitzen zuen azpieuskalkiaren baitan).

Hurrengo herria, orain beti mendebaldera goazela, Orrio dugu. Lehen aitatu dugun Jose Mari Makirriain olaiztar agurearen aita herri honetan zen sortua, eta gaurregun Jose Mari honen abizen berbera duen Aquilino bere lehengusuak adierazten duenez, bere aita, Orrio honexetan sortutakoak, bai ornen zekien pixka bat.

Eta Zildoiztik beste aldera geratzen den Untzu herrian —Txulapein (Juslapeña) harangoa hau—, bada, izan, ezkondu gabeko bere osaba euskaltzale batekin luzaz bizi izanaren ondorio, oraingoz ere ideia nahikoa duen andre bat, Bernardina Latasa Gindano, 92 urtetakoa.

Ezkabartera berrituliz, azkenik, San Cristóbal mendi-magalean bere kabia duen Garrues herri tikian Tomás Anduezak (51 urte) segurtatzen duenez, bera bizi den etxe berean sortua zen bere amonak, orain berrogei bat urte hilik ia 90 urte zituela, ez zekien euskararik. Kontutan izan behar da, hemen, Garruestik Iruñerako bidea —Orrio ondoan ere bada «Irunbidia» deitzen duten dermio bat—, haranari izena ematen dion Ezkaba izeneko

baserri batean zehar, Azotz herritik pasatzen zela, puntu hauetan, hainbestetan esandako 1863. urteko mapan, euskara galtzeko zorian egongo zelarik.


Ezkabartez ematen ari garen ikuspegi hau nolabait gehitzearren, Julián Rubio López-ek, bere «Guía de Navarra» delakoan (9. argitalpena, 1963. urtean), haran honi buruz dioena honera ekarriko dugu: «Valle del partido judicial de Pamplona, compuesto por 12 lugares, dos caseríos y una ermita. Capitalidad en Oricain. Bañado por el río Ulzama y su afluente el Orrio, utilizado aquél para la industria. Limita con Odieta, Esteribar, Pamplona, Villava y Juslapeña —*Olaibar eta Antsoain ahanzi bide zituen egileak*—. () Produce cereales, patata, remolacha, hortalizas, alubias y vino de poca graduación, llamado Chacolí. Riqueza de ganado lanar y de cerda. Número de viviendas: 183. Habitantes: 914 de hecho y 934 de derecho.»

Eta teman sartu baino lehenago, esan dezagun ere, sobera luzatu zaigun sarrera gisako aitzin-solas honetan, lerro hauetara datorkigun Cedelonia hau anoztarra dela bai sortzez bai aitaren eta honen amaren aldetik ere, ama, aldiz, «Erripetik» (Erripe = Ripa, ondoko Odieta haranean) etorria zen bitartean. Bere ama hau Odietakoa izateak ez bide zion, antza, kanpoko kutsadura nabarmenik ekarri, Bonaparte Printze jakitunak Odietako euskara, Ezkabartekoarekin eta Olaibarkoarekin ere batera, azken honen hizkeraren baitan sailkatu zuela kontutan hartzen badugu.

Anozko euskara hau, beraz, 1863. urtean Azotzen gutxiengo bat oraindik mintzatzen zena bera, inoizko iruñar euskara propioa agian ez baina, ondo-ondokoa izatean, eta zentzu zabal batetan, bederen, Iruñ-herriko euskaratzat jo daitekeela pentsatzen dugu. Baina hau horrela izanik ere, hots, baldin Iruñeko euskara (bai ote dago nolakoa zen zuzenki ezagutzerik?) Ezkabartekoak ukitua egon bazen ere —eta egon ziteken, zalantzarik ez, neurri batetan behintzat—, Eguesko euskararen kideago edo, nork daki, honen guztiz partaidea ez ote zen susmoa geratzen zaigu...

Bukatzeko, eta aipaturiko andre ezkabartearreri bildu testuetarik batzu honera ekarri baino lehenago, oharpen bat egitea bidezko iruditzen zaigu: izan ere, askotan, giro faltaz edo, pertsona bat luzaz euskara ia hitzegin gabe egoten denean, egoera honek era guztietako traba, zailtasun eta oztopoak leporatu ohi dizkio halakoari eta, zertzelada hau, hiztunak mintzatzerakoan maiztasun haundiz egin behar izaten dituen etenaldietan ezagutu egiten da. Etenaldi hauek, kasu honetan, etenpuntuaren bidez agertu nahi izan ditugu, zeren hauek pertsona bati, hitzegitean, igerri ohi zaion azentu-markan bere eragin nabaria izan baitezakete. Segurtasunik ez horri zor bide zaio ere, gisa berean, gaurregun mintzatzeko erraztasun haundiagoko erdarara, urduri antzean edo, inoiz lerratze joera.

Eta guzti hau esanik, hona Aingeru Irigaraik hain maite zuen Iruñ-inguruko, hots, Iruñeko dermio-mugatik, lerro zuzenean, zortzi bat kilometrotara ez bestetara dagoen Anotz herrixkako euskararen eredu jator hau:



Mapa hau 1954.ean egindako "catastral" batetik hartuta dago, ondoren egin diren errepide batzu gaineratu badira ere.

CELEDONIA ZENOS ARZE (Anotz, Ezkabarte)
(1981. urteko Azaroan eta 1982.eko Martxoan hartuak)

1910-1915. URTEETAN

—*Gúre erríre, tórtzen tzén Anozíbar apéza, méza matéria. Te ní e(g)óten nitzén atárien, ta pásten tzénian, erráten níón: «Ave María Purísima!». Egún batéz e... érran níón ... apézai: «Ave María Purísima!»; ta géro errán níón: «gúre béyek ín digú txekór bat...». Apézak, géro, irri'íten tzuén, ta yoán tzén... méza matéria.*

Eta, amak zer erran zuen?

— *«Geyágokoak eré aítiko tíñau!»; orái, apézai errán: 'beiek ín digúle txokór bát...', oj! ói umiá (2 sil.). Iba a la puerta a decirle «Ave María Purísima» al cura...*

Bost edo sei urte (izango zenituen) orduan, eh?

— *Sí, sí..., me peinaba mi madre y salía corriendo a la puerta.*

'Orraztu'? 'orraztu' erraten zen?

— *Orra(i)xtátu; pa'peinar, orraxtátzen tzirén ámak, ta at(e)rátzen nitzén atáriré... apéza pasten tzénian... erráteko «Ave María Purísima».*

EZKABARTE ALDERA BETI

Zer ibiltzen zineten gehiago, Anozibar aldera edo Ezkabarte aldera?

— *Ezkabárte aldéra.*

Ezkabarte aldera, eh? bada orduan ez zegoen karreterarik...

— *Ez; orduén étzegón karretéra...*

Eta Anozitik hurbilen gelditzen diren herriak, zeintzu dira?

— *Urbilléna, Anozíbar.*

Anozibar, bai. Eta gero, Ezkabarte aldera, zein?

— *Ezkabárte aldéra, pues.. bueno, a Makérriain; hemos... venido siempre a la escuela: dos horas de camino andando.*

Euskaraz, euskaraz...

— *Sí, 'euskéraz, euskéras'..., pero no puedo!, 'euskéras, euskéras...!', que no puedo, que no puedo...!*

Makirriain, eh? Eskolara Makirriaina etortzen zineten?

— *Sí, a Makírriain...*

Eta Nagiz, non dago Nagiz?

— *Un poco más a la izquierda; bueno, se pasa por debajo de Nágiz, hay un camino pa'ir a Makírriain, y hay otro, por la parte derecha, que también se va a Makérriain.*

Erran zazu hori bera euskaraz..

— *Oi, Jesús...!*

Lehen oso ongi erran duzu, eta...

— *Bai... errán du'bái, berion... ezín, ezi'ñ errán nik.*

A ver, a ver...: nola etortzen zinen eskolara?

— *Makerráñe!*

Eta nondik etortzen zinen?

— *Nagíztik...; Na(g)ízan... Nagízpean pásten (t)zén, Nagízpean... bidia, Makerráñera yoatéko...*

Bada, izan, Nagizaldea deitzen duten leku bat...

— *Nagizaldéa...*

Nagiz eta... zenbat denbora behar zenuten?

— *Bí ordu.*

Bi ordu?, oinez?

— *Óñez.*

Kontxo! hainbeste, eh? orduan geldituko zineten bazkaltzera...

Emáten giñuén bazkarié...!

Eta Makirriainen, zenbat herritako haurrak biltzen ziren, eskolara?

Zildózkuak, Orriókuak, Nagízkuak, Anózkoak, Eusékuak, Aderízkuak, Garruéskuak... eta Makerráiñguak...

Eta Untzukoak?

Eh... esa va p'al otro lao, pa'Juslapeña...

Txulapein; euskaraz nola erraten da 'Juslapeña'?

Ník eztút áitu.

Ez duzu aditu? 'Txulapain' edo, ez duzu aditu?

Ez... eztút áitu; Juslapéña.

Orduan, Ezkabarteko herri guztiak biltzen ziren... Makirriainen?

Guziak éz! Azóz, Ezkába, Árre, Orikáin, Soráuren... òye'kúzie'tiré Ezkabártekoa(k)'peño óyek étzirén yoáten árará...

Orduan, haur asko bilduko ziren...

Bai, bai... Makerráñen eskuéla o... eskóla... ederra; neskákoak alde batéra eta mutíkoak pértze álde batéra: án entráda bar... aundie, ta batzúk álde batéra ta béste batzúk béstze aldéra.

Eta bi ordu behar zenuten zuen herri horretatik Makirriaina joateko?

Bí ordú yoatéko ta bètze bide itzúltzeko.

Kontxo! horrenbeste... Eta neguan, eta eguraldi txarra...

Negúen emáten... tzigutén... negúen emáten tzigutén ábrian; áite yoáten tzén, ta emáten tzigún te... géro, atsáldian berríz, yoáten tzén... biltzera.

Oh! zer ongi! bai oroitzapen polita! gogorra izango zen baina oroitzapena polita da..

Ya, ya...

OGIA EGITEN ZUENEKOA

Eta ogia, nola egiten zenuen?

Pues obíe, iten dá bezpératik... orántza: a la levadura se llama... orántza. Bezpératik iten dá orántza, urpe (?) (arroitu batek ez du hitza ongi aditzen uzten) báteki, eta orántza... guardátzen dá...

Plater batean?

platér bátian, eta arréi kéntze 'tzaio... geldítzen dá... kon... bastárretaik... pues.. zakár, kéndu bastárr-ayék, eta óre botátzen dá úrera, úrerá... iri.. ariñé-ki; eta iten dá óla... eskuéki... zúlo 'at, iriñen, eta bóta árará, t'uréki... úre... déna... disolver aquello. Que no sé... !

Urtu, edo...?

Úrtu! eta géro, úre, pues.. úr úre... sekátu ártio, yoáten dá... iriñe botátzen, botátzen, botátzen, botátzen... ta déna... biltzen da; eta óre, sekátzen dénian, geldítzen dá... gúri-guríe, eta... ártu, eta... tapátu; iriñéki, te úzten dá, béste... (). Géro... béztz 'egúnian, yéiki, eta... iten dá... (alabari): cómo, María, te acuerdas? () la masa.

(Alabak): no; pero dí en vasco...!

Sí, 'pero di en vasco', y cómo? Bueno, pues la masa, se... se hace aquello, se echa agua otra vez... pues... iriñe, e(g)íten da zúlúa, eta botátzen dá... orántza; orántza, bezpéran iñ uré, botátzen dá arára, ta bóta úre... eta géro... amasátu, amasátu déna... eta... claro, pues bádakik e... bádakí... pero no me puedo acordar...

(Alabak): Géro tapázen dá, déna... (zerbait badaki berak ere, ikus daitekeenez).

...déna. sekátzen dénian, orántza bezála, déna iten dénian, pues botátzen da... errégu'et... érregu'et o bí errégu (e)do errégu'et et'érdi edo... iriñe, t'ure sekátzen dénian, pues.. déna, irin gúzie, sekátzen dénian, úzten dá... óngi-óngi sekátu gábe, beño éztayéla oyálará... agarrátu. Con que géro, úzten dá beré tapátu, eta tapátu, orántza arrekí i(y)éten dá, góiti; et'úzten dá eztáki 'zénba' tenbóran, (e)nátz oróitzen zér denbóra, beño... óri, eskuéki, ukitu, eta... záuntzen dá, gorátu... daónian.

Ezagutzen da?

Zaützen dá... gorátzen dénian, bai; gorántza (sic) arrekí, gorátzen da. Eta géro, pues... lábia... bístu; eta lábia... ya... zaützen da gúti... gorabéran, berótu... dénian, eta géro, íten diré... kanabitéki, báki, eta ogiak; eta uztén da... un ratico; para decir 'un ratico', que no me acuerdo..! (erdí barrez).

Pixka batean, edo..

Bueno, uztén da... báí, dénbora píxkoat; eta, géro, obí aiei, pásten (t)zaió exkúe, biátza, óla, t'íten tzaió telátto'at. Ta, telátto úre... íten dénian, pues... lábia garbitu: garbitu lábia, eta sártu ogiak.. ! () óre, iñ ordúko, berótui'táo; sártzen tzaió, claro, egúrre fránko! eta... géro, labia berótzen dénian, íten diré obiek, eta géro sáldu. Eta géro... egósten dirénian, egózten dirénian, pues átra obíe, claro...!

Eta zeren gainean sartzen dira ogiak, ohol baten gainean?

Ol.. Ol.. óla bát... óla bát, óla... zabála, ezkín bateán, ta géro... kidér bat lúzia...

Ah! pala baten gisan?

Eso...! eta géro, arréki sártu eta arréki átra ere báí.

Eta beste gauza bat: labea, ogiak eta pala sartu aurretik, sartu aitzin, ez da garbitzen?

Bai, garbitu báí...!; gùre erríen ezpél aúnditz deé, ezpéla, eta ezpél árrekí íten da ésku'at. Eta eskú arrekí garbítzen dá lábia; garbitu, te... géro, obiek sártu...

Ezpelez egiten den esku bat? ("esko" = erratz, esan beharko nion).

Ésku, eskúe...! íten da... (alabari): calla, de sabuco también... ésku'at ín, traer... una brazada... y luego aquello poner en un palo, atar...,

Ah! makila batetan lotu...

Eso...!

Eta harekin?

Arréki(n) lábia garbitu, eta géro sártu.

HAMAR URTETAKOA ZELA (1918. urte aldean)

Amárr-urtétan ni, beyéki... te biórraki, ibiltze'nitzén... oyánian; goizétan áitek... lagúndu, emátera. Ta géro, egúnez, nik, kasín, alorrétaik. Gèró... áite atsáldian yoáte' tzén lagúntzera. Ta... bien ártio, bíldu dénak, eta kártzen giñituén ítxera. Amárr-úrtez! amárr-urtétaik ogéite... úrte ártio ibilli nitzén ní, beyéki te... biórraki...! Zenbái'lékutén... yoán... biár nuén óla... no sé cómo se dice...! éskuék parátu lúrrian, ta pastéko., larrétan ta ezín pástu(z)... orduén ibiltzen tzén... burúen pañól(b)at, eta... lárrak, kéntzen zi(d)etén

pañ(u)éloa ta... aústen, aúxten (t)zietén báta, eta... déna; zenbáit e(g)únes, oh! idúri... idúri in nuén... jítoa.

Eta larrak, zer, zikin zegoen bidea?

Zikin; zikin, zikin...

Maleza aunitz?

Maléza; ezín pástu, ezín pástu... eta,.. yoáten tzién... ítxe bateán... zutén biór bat... gáixtoa, ta... béztiak orráta ta... guréa ará ta... al revés, béti... béti béztian... bértzetaik eskápo óre ta; uré kartzerá, yoatéko uré kartzéra béste án... béztetará, pues... ibillitzen nitzén... zér daki'nik zen(bat?) denborá...!

Eta ijitorik bazebilen?

(Hortzez ezezka): Án étzen jítorik... án étzen jítorik... Áldi bétez...

OLAIZKO ARTZAIA IRTEN ZITZAIONEKOA

Aldi bétez... Oláizko... artzái bét... yoán tzén... gúre... gúre erriko... oyanéra; falta zuén... fálda zituén ardi betzuk, eta... billetzéra, ayén billátzera; ta ni, nindabillén án, beyéki te... biórreki(n)... álde batéтик, kártzen bértze aldéra... ta ník, ikúsi nuénian... múletaki(n)... zábillèla ...! útzi béyek eta biórak án, eta laixtérka yoán nitzén... neré anáie béstze eskín batián tzén, billátzera (barrez), ikerátuik!

Ikaraturik, eh?

Ikerátuik... anáien bille; ta anáyeki... juntátu nitzénian, errán nion... án, gizon bat, zabillèla... mulétaki te, né(r)i... ikerátu ziréla áundiz; zidaiéla... nai bazuén... béra, kartzéra beyék eta...; anáie zén ni beño gaziágo (3 sil.), eta... kartzéra: ni éni(n)tzéla in bein (?), enintzéla yoáin nitz (1), zidaiéla nai bazuén béra! ta, béyek eta biórak, buélta mánes géros, tórtzen tzirén béren gixe despázio-despázio... tórtzen tzirén... béren... lekúre. Beño ni ènitzén yoán arará; ni(k), errán nióñ... anayéi enintzéla yóaintz (2), eta... ni itxéra, ikerátuik ni itxera... (barrez).

Eta zuk, erran nahi zenion anaiari: 'etortzen baldin bada...'

Zida(i)éla béra, kartzéra; ni, énitzéla yoáin; uré mutíkoa baitzén, pues ní ènitzéla yoáin, ni. Ni, ikerátu nitzén, kúsi nuén(e)an gizon úre... muléta ayéki, án, oyánian... etzéna, eztá gai... paráje artáik... erríe, eztá gáitan: ni, ikerátuik, yoán nitzén itxéra.

Ez zenuen ezagutzen artzai hura?

Nik ez, enuén za(g)utzén; géro... nére aiték errán tzirén nórtzén... claro! erran tziénian nórtzén, orduén yá... enitzen ikerátzen, beño... lemíxiko aldien kúsi nuénian...!!

(1) *ni* behar lukeela dirudi.

(2) Harrigarri xamar gertatzen da hau, eta are gehiago aurrekoarekin parekatzen bada. Fossilizaturiko zerbait ote da?, berari galdeturik «enintzela yoain ni» behar duela esan du.

SUTONDOKO GIROA

Errien sukéldian... zirén... etxémeni oyék... aundiek, eta... géro, sukél'altziñen, yártzen tziren... iru edo láu, eta geró, balin bazirén geyágo, éz... etzíren kabitzen án, ta yoáten tzirén sustóndóra... sustóndora, án yártzen tzirén, eta án dénak, súen, berótzén...

Eta bazkaltzeko?

Bazkáltzekó... máien, máyen, claro!; óri berótzeko... o... por ejemplo, pues... bazkalóndoan, o suóndoan (3) ótza iten bazuén, pues... dénak án yárrri, ingúrren, eta... hala! kópak eta, káfiak eta, denetáik ártu; te suóndoan egón béro-béroa...

ABEREA ERORI ZITZAIONEKO LARRIALDIA

Nère áitek... mandátzen tzi(d)én... Makerráñe! Makerráingo eskólan, máten tzutén yatéra... aúrrei, eskolára yoáten tzirénai (3 sil.) Eta... an... án bazkaríe itéko, nère áitek emáten tzuén egúrre, oyanétik. Eta... beyéki zegó(e)nian iten tzuén egúrre, ta géro erráten tzién néri...: «guayé!»... amárretan o améketan o... «guáye arará ta... ník egúrre prestátu-...ko'ñet. Eta géro... kargátiko'ñet ábria, eta... ik, emákon... Makérrañe». T'aldí betéz, ègon tzén biórra gáizki, eta... ník énuén, énuén... yoán náí; erráten nión áitei ezézt! enítzela fiétzen, botáko zaikiéla ábria! eta ezézt! Áitek akonpáñatu zirén púske bátian, eta... géro errán tzien: «guáye! orái... berótu zún... (zuzentzera doa) berótu... dun ábria, eta yoáin'i!». Ta... zén aldápa bát, t'aldápa... artán, aldápa béiti... árrri bet aúndie zegón án, ta ándik... pasátu... biár giñuén. Eta ábriaik án, itian... óla béiti... pues... ordúen, miña ártu zuén... ábriaik, eta bóta zaikién... mutúrrez...! Eta (e)zín sóltatu kuérdak eta (e)zín... t'ábria apurátuik! ta béldur nitzén ní itóko zelá! et'ási nitzén, egúrrek atrátzen ya flojátzen tzén kuérda...! ta ordúan suélta... sueltátu nuén kuérda, eta soltátu nión petrália, zèrgatik emáten tzutén básta, básta álde bátetik bertzéra, lépua (2 sil.)... lépuan azpítik, «petrália» erráuten (t)zaikió... sujètatzéko bastá, éz... botátzen, ez... tayén bóta. Eta... ordúen, sueltátu nión óre, ta kéndu nión básta, déna... atzéra! eta géro... txutítu... neré... lagún... néri... ni, lágúndu, eta txutítu zén biórra; ordúen geldítu zén... deskánsatuik! Géro, parátu nión básta ník, parátu nión básta eta zamúkek, déna paratu nión, eta... ez! enión parátu; enítzen... ní enáiz oróitzen zénbat úrte nituén, ordúen. Ník, básta... ezín bóta nión gañéra; eta gizón bát Makerré(i)ngua, éldu zén kárro batéki... egurréki, t'esperátu nuén, gizon oré árará erdetsi ártio, ta gizón arréi èrran nión bóta zaiki(r)éla

(3) Bazkalóndoan edo -ónduan, eta suóndoan edo -ónduan, oso garbi ez daude, baina edozein kasutan ere lehenengoa 4 silabatan eta bigarrena 3tan entzuten dira.

ábria, eta nóla... txutítu... nuén, eta yá... paratíko zión arrék básta. Ta arrék, gizon arrék parátu zión básta, eta parátu geñitón... zamúkek eta katxárrro gúziek, eta geró... kargátu, eta yoán nitzén Makerrá-ñe(a). Beño errán nión áitei eni(n)tzéla berriz yoáin, né(r)i ez... mandátu... berriz...

Eta non gertatu zen hori, bide erdian?

Bide... erdian o olá...

Nagitz inguruan, edo?

Zén bëtzáldetik; Nágitz ba... Nágitz áldétik etzén yoá... (zuzentzera doa) yoáten tzén Nágitz áldétik eré, beño yoán nitzén ni... ni, bëtze... áldetik...

Eta behorak ez zuen minik hartu?

No, zè(r)gatik ed'arrék... lépuan, ertsítzen tzión...! eta... peligrátzen tzuén itótzekoa (4 sil.); itótzea! beñó...

Bai, bai, bai; eta gero aurrera segitu...

Géro, aurréra (4), ta... hala...!

HITZ EDO ESALDI BATZUEN ESAN NAHIA

- *bi ordu yoateko ta bezte bide itzultzeko* = ... eta beste bi itzultzeko. Hemen, bai *bi* bai bida-tik, itxuraz, datorren *bide* hori —*u* eta *i* ondotiko *a* bokalak *e* batetan isteko duen lehia guztiz nabariaren ondorio— biak erabiltzen ditu.
- *neguen ematen tziguten abrian* = neguan eramaten gintuzten aberean.
- *aite yoaten tzen, ta ematen tzigun te...* = aita joaten zen, eta eramaten gintuen eta...
- *ne(r)i ikeratu zirela aundiz* = ni ikaratu ninduen aunitz. Adibide gisa ematen ditugun hiru kasu hauetan argiro nabarmentzen denez, nork-nor delako aditz-jokoa aplikatu beharko litzatekeenean nork-nori-nor gisakoa jokatu ohi da. Era honetako joera oso zabaldua dago gaurregun euskalki honetan, oro har, oraingoz mintzo den edo mintzatzeko gauza den jendearen artean.
- *bezperan iñ ure* = bezperan eginiko hura.
- *ezta gaitan* = ez da (gauza) arrunta (?).
- *zidaïela* = zihoala!, joan zedila!
- *guaye!* = hoa!, joan hadi!
- *botako zaikiela abria* = eroriko zitzaïdala aberea.

(4) Hemen, dirudienez, nik esandakoari jarraituz esan du «aurréra» hori, berak, ohiki, *altziñe* emango zuen lekuan.

- *yoain'i!* (ez dakit geroaldiko ala aginterakotzat hartu behar denez ote: lehenengo kasuan *yoain eiz* espero ziteken eta *yoan adi!* bigarreanean).
- «*petralia*» *erraiten (t)zaikion* = 'petralia' esaten zitzaion.
- *eztayen bota* = ez dadin eror.

AZKEN OHARRAK

Honen aurreko testu horien zernolakotasunaz zerbait esan nahi genuke, baina gaude lan hau sorrerazi duen zioa eta berari zor bide zaion neurria ez ote diren aproposenak munta haundiko azterketa eta analisi sakonetan murgiltzeko. Horrezaz gainera, bestek aurrenik esan ez duen askorik ezin genezake esan, Francisco Ondarra, Juan Apezetxea, I. Kamino eta beste zenbaitek argitara emaniko hainbat lan interesgarritan esandakoa errepikatu besterik ez baikenuke egingo. Hala ere, eta beste aukera egokiago baten zai luzaz ez egoteko, zilegi bekigu, axaletik bederen, hitz bi esatea.

- Gutxi edo ia ezer baizik entzuten ez diren hizkiak parentesi baten barruan sartuak izan dira. Honela, e.b., *zieten* edo *zireten*, zer esaten den oso garbi ez denean, *zi(r)eten* idatzi da.
- Azentuari dagokionez, hemengo hau Erronkarikoa bezain markatua ez den arren nahiko nabarmena dela iruditu zaigu. Honela, bi edo hiru hitz, esate baterako, nolabaiteko kolpe batez esanak izatean neurri desberdineko «musikalitatea» entzun uste izan dugunean, intentsitate hori () indar haundieneko silaban eta () gutxixeagokoa idatziz agertu dugu geure uste hori.
- Zenbait ahoskeratan zalantza sortu zaigunean, gehien entzun uste izanaren alde jokatu dugu, inolako aurriritzitan erori nahi izan gabe. Honela gertatu zaigu, esaterako, *s* eta *z* fonemen arteko bereizkuntzarekin, beraien arteko diferentzia ez baitzaigu, askotan, uste bezain nabarmena ageri. Kasu batzutan —*manes geros* aditzen den bakarrean, adibidez—, oso ongi bereizten dira bi *s* horiek, baina bestetan zailago gertatzen da bereizkuntza hori, *gauezko/gauesko* batekin gertatzen den bezala eta, kasurik gehienetan *z-z* entzuten badira ere (*berriz*, *aldi betez*, *muturrez*, *egunez*), *zenbait e(g)unes* entzuterik ere bada.
- *St* eta *rtz* direlakoan arteko gorabehera, kasu honetan, zertxobait nahasten zaigula esan behar. Itxura denez, bai hemen bai Txulapein aldean, *beste/bertze*, *bost/bortz*, *esan/erran* gisako erak (azken hau Txulapein aldean eta ez hemen) bitara erabiltzen edo erabiliak izan dira. Hau izan baita, dirudienez, era hauen arteko bil-lekua eta, horregatik, transiziozko joera bat erakusten duten *beste*, *bestze*, *beztze*, *be(r)ztze*, *bertze*... bezalako erak hemen aditzeak ez dirudi gehiegirik harritu behar duenik.

- Hizkera honetan arrunt ez izanik ere, atzizki deklinatiboari dagokion kasu interesgarri bat ageri zaigu, *-tzera* bukaerako adizkeraren bati egokituriko osagarri zuzenak genitibo gisako era hartu duenean: *eta* (yoateko) *ayen billatzera*.
- Pluraleko 3. pertsonak, agente aktibo denean, ez du, beste zenbait azpieuskalkitan bezala, *-ek* partikula hartzen, beti ere *-ak* delakoarekin geratuz: *larrak, kentzen zi(d)eten pañ(u)eloa*, eta *gizonak, tiretu zioten arranoai*.
- Eta azkenik, hizkera honetan aferesia edo deitzen dena oso nabarmena izatean (*in, man, karri, torri, baki, zautu...*), zera esan nahi dugu, testuen irakurketan zalantzarik sor ez dadin: «eraman» esateko *eman* erabiltzen dutela, «eman» delakorako *man* esaten duten bitartean.

BIBLIOGRAFIA

- APECECHEA, JUAN. *Joaquín Lizarraga, Elkanokoa: «Doctrina Christioarén Catechima»*. Dip. Foral de Navarra, Instituto Príncipe de Viana y Real Acad. de la L. Vasca-Euskaltzaindia. Pamplona, 1979.
- BERIAYN, JUAN DE, *Tratado de cómo se ha de oyr missa, escrito en Romance y Bascuence* (Birrargitalpena). Euskal Klasikoak, 30. zk., Hordago, Donostia, 1980.
- BONAPARTE. LOUIS LUCIEN, *Carte des Sept Provinces Busques, montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés*. Londres, 1863.
- DIEZ DE ULZURRUN, PEDRO, *El catecismo manuscrito de Maquirriain de 1828*. Euskera, 1960.
- IRIGARAY, ANGEL. *Noticias y Viejos Textos de la «Lingua Navarrorrum»* (A. Apat-Etxebarne deiturapean idatzia). Sdad. Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A., 1971. San Sebastián.
- IRIGARAY, ANGEL, *Nuevos documentos para el estudio del Vascuence Alto Navarro Meridional, Problemas de la Prehistoria y de la Etnología vascas*. Instituto «Príncipe de Viana», Pamplona, MCMLXVI.
- IRIGARAY, ANGEL, *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca - XX-garren mendeko Nafarroako euskal idazleak*. Inst. «Príncipe de Viana», Pamplona, 1958.
- IRIGARAY, ANGEL, *Una geografía diacrónica del Euskera en Navarra*. (Hau ere A. Apat-Etxebarne deiturapean idatzia). Colección Diario de Navarra, 10. Ediciones y Libros, S.A. Pamplona, 1974.
- IZAGIRRE, AITA KANDIDO O.F.M., *Ultzamako euskeraren gai batzuk*. BRSVAP XXII, 1966.
- KAMINO, I., *Euskal dialektologiaren hastapenak*. Udako Euskal Unibertsitatea, Iruñea 1983.
- LEKUONA, MANUEL DE, *Textos Vascos del siglo XVIII, en Tierra de Estella*, FLV n.º 15, 1973, Pamplona.
- MICHELENA, LUIS, *Elegía de Juan de Amendux* («... descubiertos por José Goñi Gaztambide y publicados por J.M. Satrustegui, BAP 19 (1963), 63-85, con fotografía). Textos Arcaicos Vascos. Ediciones Minotauro, Madrid, 1964.
- MICHELENA, LUIS, *Poesías premiadas en Pamplona en 1609* (lehenago Jules Vinson-ek, RLPhC 12 delakoan, 1879.ean. argitaratuak). Textos Arcaicos Vascos. Ediciones Minotauro, Madrid, 1964.
- ONDARRA, FRANCISCO, *Goñibarko euskara XVIII. mendeko sermoietan*. Euskera, 1980.
- ONDARRA, FRANCISCO, *Primer sermón en vascuence navarro (1729)*. FLV n.º 38, 1981, Pamplona.
- RUBIO LOPEZ, JULIAN, *Guía de Navarra (9.ª edición) 1963*. Imprenta La Acción Social. Pamplona.